



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-09-23

VILURTEA 1.783.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo, Villabonako eta Zizurkilgo haurrek graffitiak egin zituzten Zubimusun. ASIER IMAZ

Garaian garaiko eta herriko produktuak azokan bilduta

IBARRA Igande honetan izango da 'Ibarra Azoka eta Piparra' azoka berezia goizean zehar, Hauspoa elkarteak antolatuta >7

DORI MARTINEZ SUKALDARIA

«Udaberrirako bilera gelak eta ostatua bultzatu nahi ditut»

BALIARRAIN Zartagi jatetxearen gidaritza hartu du sukaldariak udako oporraldiaren ostean <6

AUTORIK ERABILI GABE ERE MUGI GAITEZKEELAKO...

TOLOSALDEA Atzo Autorik Gabeko Nazioarteko Eguna izan zen eta eskualdeko hainbat herrik ekitaldiak antolatu zituzten <4-5

BHARAT MARTIN
BARRETERAPEUTA

«Bizitzako oztopoetatik askatzea lortu nahi dugu»

TOLOSA Kontzientzia globalari buruzko jardunaldiak, gaur >2

1,5 milioi euro inbertituko dituzte pantaila akustikoak jartzeko

VILLABONA N-1 errepidean jarriko dituzte, trafikoko zarata gutxitze aldera <3



bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara



1. Saria

Getariko Saiaz hotelak bi lagunentzako asteburuko...

2. Saria


Karlis argazki argazki erre...

3. Saria

Gabiriko K... bi lagunentzako...



2. Saria



E Elkarrizketa**BHARAT MARTIN** › Barreterapeuta**L Laburrak**

«Bizitza gozatzea galarazten diguten oztopoetatik askatzea lortu nahi dugu»

Tolosa » Kontzientzia globalari buruzko IX. jardunaldiak antolatuta dituzte; bizitza zoriontsua izateko jarraitu beharreko herramintak eta bideak erakutsi nahi dituzte.

INIGO TERRADILLOS

Kontzientzia globalari buruzko IX. jardunaldiak antolatuta dituzte aste honetarako Tolosako Sanatana Dharma eskolak. Hiltzaldi eta tailerrez osatua, astelehenean ekin zion, eta bihar izango du azken eguna. Zoriontsu izaten bizitzeko jarraituko beharreko bideak erakutsi nahi dituzte jardunaldi hauekin. Bharat Martin barreterapeutak eta Tolosako Sanatana Dharma eskolako ordezkariak emango du biharko hitzaldia.

Zein da jardunaldi hauen funtsa? Norberaren bizitza hobetzen laguntzea, eta horretarako baliabideak eta teknikak ematea da xedea. Orain 18 urte-edo deskubritu nuen barrea eta umorea, eta ordu-tik ari naiz lantzen. Jendeari euren alde positiboa ateratzen erakusten diogu, euren barrualdea aldatzen laguntzen diogu.

Nola lortzen da hori?

Enpresa, elkarte, unibertsitate... leku askotan aritzen gara tenika hauek lantzen. Guk bizitza alde positibotik ikusteko herramintak zein diren erakusten dugu. Esaterako, ez dugunaz kezkatzen garenean, beste alde batera begiratze-ko esaten dugu guk, hau da, dugu-

na eskertuz. Hori nola egiten den erakusten dugu. Horrela, jarrerak aldatuz doaz, norberaren barrualdea aldatzen delako. Bizitza gozatzea galarazten diguten oztopoetatik askatzea lortu nahi dugu.

Gaur hitzaldia emango duzu Kultur Etxean.

Ondo pasatzeko ordubate bat izango da. Bertan umorea eta barreari buruzko teoria eta praktika landuko dugu, eta hau baliagarria izango dela espero dugu norberaren bizitzetan. Parte-hartzaileei zera esango diegu, bilatzen dutena euren barrualdean dagoela, ez dagoela kanpoan bilatzen egon beharreik. Guk taktikak eta herramin-

Gaur hitzaldia izango da, eta bihar tailerrak; jende guztiari irekiak eta doakoak dira

tak emango ditugu alde positibo horiek ikusten jakiteko, eta jarrerak aldatzeko. Honek guztiak funtzionatzen du, eta bertaraten direnek ikusi ahaliko duten euren begiezt, norberak lan pixka bat eginez gero, eta hainbat jarrera aldatuta, onura handia eragingo dituela norberarengan. Jende askori aldatu zaio bizitza.

Hitzaldia gaur, eta bihar, jardunaldiak emaitzeko, tailerrak.

Bai, eta horietan nahiz gaurko hitzaldian edonork hartu ahaliko du parte. Irekiak dira, eta doakoak. Bakoitzak nahi duena izan ahal duela erakutsiko dugu, baina horretarako ezinbestekoa dela horretan jarraitzea, nahi horrekin.



I.T.

» EGITARAUA**Solasaldia**

■ **Irailak 23, gaur.** Barrea eta umorea gure bizitzan: zoriontasuna eta alaitasuna. Hizlaria: Bharat Yoga-charia (yoga eta meditazio maisua, barreterapeuta eta maisuen formatzailea). Kultur Etxean, 19:00etan.

Tailer praktikoak

■ **Irailak 24, bihar.** Barrearen yoga tailerra. barreterapia. Barrearen eta umorearen boterea gure eguneroko bizitzan. Tolosako Sanatana Dharma Yoga eskolan, 09:00etatik 10:30era eta 17:00etatik 18:30era.

Hernaniren aurkako partida erraz irabazi dute urdinek

Tolosa » 0-2 amaitu zen partida; tolosarrak jaun eta jabe izan ziren ia partida osoan; lau punturekin, laugarren dira sailkapenean.

ERREDAKZIOA

Zubipeko zelaian jokatu zuen lurraldekako ohorezko mailako Tolosak aurtengo denboraldiko bigarren partida larunbatean. Hernani eta Tolosa aritu ziren nor baino nor norgehiagokan, eta azkenean urdin elerman zituzten hiru puntuak.

Tolosarrak jaun eta jabe izan zi-

ren ia partida osoan, eta erraz gailendu ziren Hernaniren aurrean. 0-2 amaitu zuten partida. Lehen gola Gurrutxagak sartu zuen 30. minutuan, eta bigarrena partida ia amaitzeaz zela, 90. minutuan sartu zuen Zubelzuak.

Hiru puntu batu ditu, beraz, Tolosak azken partida irabazita, denbora, 4 dituztelarik. Izan ere, ligako lehen partida Oiartzunen aurkako izan zuen, eta han berdinketa erdietsi zuten tolosarrek. Au puntu horiei laugarren dira sailkapenean. Pasaiaren, Aurrera eta Trintxerperen atzetik. Hurrengo partida etxean jokatu dute Ordiziaren aurka.

Herritarrek nolako Gipuzkoa nahi duten aztertuko dute

Gizartea » Gazteen iritzia hartu nahi dute batez ere kontuan, eta horretarako, eskualdez eskualde saio irekiak egin nahi dituzte.

ERREDAKZIOA

Herritarrek Gipuzkoa 20 urte barru nola irudikatzen duten jakin nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak, horren arabera epe luzeko estrategiak adosteko. Horretarako G+20 proiektua jarri du abian, eta hainbat alorreko eragilerekin ari da elkarlanean.

Aldundiak arreta berezia eskai-

ni nahi die gazteei, eta G+20/Gazteak 500 azpi-proiektua sortu du. Hala, Gipuzkoako 16 eta 24 urte bitarteko 500 gaztek Gipuzkoan nola bizi nahi duten hausnartzea nahi dute, eta hori lortzeko bideak proposatzea.

Elhuyar Aholkularitza enpresak gidatuko du ekimena. Ikaste-txeetan egingo dute lan 16-18 urte bitartekoekin eta baita eskualdeetan ere, 19-24 urte bitartekoekin, urrian hasita. Behin prozesua amaitzean, emaitza guztiak argitaratu emango dituzte. Eskualdeko saio irekietan parte hartu nahi duenak g+20@elhuyar.com helbidera idatzi beharko du.

Argindarra moztuko dute datorren astelehenean

Tolosa » Tolargik jakinarazi duenez, argindarra moztuko du datorren astelehenean, hilaren 28an. Mozketa arratsaldean egingo dute, 15:00etatik 16:00etara, eta ondorengo etxebizitzetara eragingo die: Soldadu kaleko 1,3,8,10 eta 12 zenbakiei, Antonio Lekuona kaleko 2 eta 7 zenbakiei eta Pablo Gosabel kaleko 4 eta 6 zenbakiei. Argindarraren mozketa «bezeroei zerbitzu hobea emateko lanen ondorioz», instalazioetan egiten ari diren hobekuntza eta mantentze-lanengatik egingo dutela azaldu dute.

'Eloixio da distancia' filma, bihar ikusgai, Leidorren

Tolosa » *Eloixio da distancia* filma izango da bihar ikusgai, Leidor aretoan, zine forum saioan. Ohi bezala, jatorrizko bertsioan emango dute filma, eta bi saio izango dira aukeran: lehenengo saioa 19:15ean, eta bigarrena, 21:45ean. Julio Llamazares eta Felipe Vega dira filmeko zuzendariak. Lugin kokatzen da, eta naturaren eta gizonaren aldaketak islatzen ditu.

T Telefonoak**Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.**

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Villabona zeharkatzen duen N-1 errepidetik ibilgailu ugari igarotzen dira. I. GARCIA

Pantaila akustikoak jarriko dituzte N-1 errepidean

Villabona » 440,850 eta 442,250 puntu kilometrikoen artean jarriko dira; Aldundiak 1,5 milioi euro inbertituko ditu.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1,5 milioi euro baino zerbaite gehiago inbertituko ditu Villabonan N-1 errepidean pantaila akustikoak jartzeko, trafikoak eragindako zarata gutxitze aldera. Lanak

440,850 eta 442,250 puntu kilometrikoen artean egingo dituzte eta Construcciones Galdiano SM enpresak burutuko ditu lau hilabete epearekin.

Proiektu horren arabera, pantaila akustikoak jarriko dira N-1 errepidean, 1.400 metrotan, Etxeondo auzoko gasolindegitik irteko bideadarraren (440,850) eta 442,250 puntu kilometrikoaren artean. Zati horretan, errepidearen lurrerauzketa ezpondak lau metroko altuera hartzen du.

Bestalde, proiektuak Amasara

doan errepidearen gainean dagoen zubiaren behe-armadura sendotzea aurreikusten du, karbonozuntzeko xaflak ezarri. Era berean, zubiaren bidezoruan lanak aurreikusten dira, hau da, aglomeratua eta dilatazio-junturak konpontzea.

Jarriko den pantaila akustikoaren diseinuarekin, pantaila hori inguruko paisaia integratzea lortu nahi da eta, horretarako, makina egokiak erabili beharko dira egun dagoen landare pantaila babesteko.



Auto batek su hartu du Kale Berrian

VILLABONA » Herenegun gauean auto bat kiskali zen Villabonako Kale Berrian, 46 zenbakiko portalaren parean. Ez zen zauriturik izan ezbeharrean. Dirudienez motorrak su hartu zuen eta azkenean autoaren aurrekalde guztia erre zen, ke handia sortuz. Ordubetez kalea itxita egon zen. HITZA

Falange y Tradicion-ek Tolosako eraso bere gain hartu du

ERREDAKZIOA

Falange y Tradicion elkarteak bere gain hartu ditu Euskal Herrian 2008ko urritik hona egindako hainbat ekintza, horien artean abuztuaren 27an Tolosan. Joxean Lasa eta Joxi Zabalen hilobietan egindako pintaketa. Eskuin muturreko elkarteak *Gora Galindo* eta *Cerdos Comunistas* margotu zuen.

Falange y Tradicione «independentismoaren eta komunismoaren aurka» aritu dela esan du eta egindako ekintzen berri eman du: frankismoaren biktimen oroitarrien aurka, Espainiaren aldeko eta Euskal Herriaren aurkako eta ezker abertzalearen aurkako pintaketak, Sonia Polo Bilboko txupinerari bala bat bidali izana...

«Giro ederra» Behar-Zanaren egoitza berrian

Villabona » 150 bazkidetik gora izan ziren afarian; Ignacio Berakoetxea izan zen lehen bazkidea egoitza berrian sartzen.

ERREDAKZIOA

Behar-Zana Pilota elkartearen egoitza berriaren aitzakiarekin bertan izan ziren bazkide eta gonbidatu guztiek «giro ederra» bizi izan zuten pasa den asteburuan, elkartetik azaldu dutenez. Egungo elkarteko lehendakaria den Urko Martínez de Albenizek elkartea zaharreko atea betirako itxi zuenean emaitza egoitzen arteko aldatetari hasiera. Atea itxi bezain pronto, Behar-Zanako bandera eta ikurrina alde banatan harturik, elkarteko bi bazkide zaharrenetakoak diren Ignacio Berakoetxea eta Patricio Bernaras teartean zirela, Incansables Zaharrak txarangak jotako Behar-Zanako doinuarekin lagunduta, Behar-Zana berri-runtz abiatu ziren egungo lehendakari eta festan parte hartu behar zuten bai Juan Isasti apaiza, bertsolariak...



Behar-Zanako bandera eta ikurrina artean, eskubitik ezkerrera, Urko Martínez de Albeniz, Ignacio Berakoetxea eta Patricio Bernaras. HITZA



Juan Isasti apaiza elkartea bedeinkatzen. HITZA

Elkarte berriaren sarreran, pilotariz jantzitako neska-mutikoelek pilotan jokatzeke erremintaz egindako arkuak zeukaten zain, Behar-Zanako ateruntz bideratuaz. Bertan, Nahikari Gabilondo eta *Mantxi* bertsolari zarauztarren agurraren ostean, Martinezek eta Bernarasek lagunduta, Ignacio Berakoetxea bazkide zaharrenak ohorezko zinta moztu ondoren, Aitor Landa bazkideak jotako txistuarekin, Eneko Arteaga eta Ekain Yarza bazkideak ohorezko agurra dantzatu zuten. Ondoren, Josetxo

Azurmendi batzarkideak Behar-Zanako bandera eta ikurrina ipini zituen sarreran. Berakoetxeak izan zuen lehendabizikoz atea irekitzeko ohorea behin apaizak elkartea bedeinkatu ostean. Afarian, egun Behar-Zanak dituen 245 bazkidetatik 150 bazkidetik gora izan ziren, txarangak eta bertsolariak sortutako «giro beroaren babesean».

Igandean, gonbidatuen bazkarian 100 lagunetik gora izan ziren, Orfeon de la Castaña taldearen abestiek ingozatuz.



Larunbat gaueko bazkideen afaria. HITZA



Vilabona eta Zizurkilgo haurrek graffitiak egin zituzten Zubimusun. Bertan autorik gabeko ingurua boti inagiatu eta marraztu zuten.

AUTORIK GABE HOBE

Mugikortasun Astea » Udal, jubilatuta eta haur ugari bat egin zuten atzo ospatu zen Autorik Gabeko Eguna herri Tolosaldean.

ASERIMAZ
Mugikortasun Astearen Autorik Gabeko Eguna ospatu zen atzo eskolako hainbat herrietan. Elkarlanean haurrek, gazteek eta helduek hartu zuten parte. Ameriketako aldizkariak, ikasleak oinez joan ziren eskolara.

Adunak aparkalekuak kontaketa eta emaitzak
Mugikortasun irauunkoraren Astearen balantzea egiterako unean gaitara agertu da Adunako Udala, «izan ere, lehen aldiz da Tolosaldean mallan antolatutako ekintzez gain, Adunak berezko ekintzak antolatzen direla. Beraz, hurrengo urterari begira partaidetza mailak gora egitea espero dugu eta parte hartu duten herritarrei eskerririk beronak eman osteko idaztegia».

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

XXeen parte-hartzearekin, xxxko lagun hurbildu ziren ekintza horietara beren bizikletekin.

Anoetako ikastolaren ekimenak
Anoetako Herri Ikastolan ondorengo lanak egin zituzten atzokoan, Autorik Gabeko Eguna zehazki bat eginaz. LH1 eta LH2 mailako ekimenak gabeko egunaren inguruko marrazki batzuk eginaz gain, erakusgai jarri zituzten Ikastolaren emaitza honakoak izan ziren: «Herri gunean autoentzako 152 aparkaleku publiko daude, etxeetako aparkaleku pribatuak zenbait zuzero, aparkaleku kopuruak gora egongo luke. Beraz, argi gertatu da herri gunean inkestratutako 110 autoek aparkalekuak soberan dituztela».

Aratsaldean norberak bere bizikleta nekin egonariaren orazuna eta aldi berran, bizikleta ahalik eta hobekien mantentzeko helburuarekin. Udalak, biraketen txoketa antolatuta zuen herriko plazan.

Berrioki
• **Gaur, hilak 23.** 17:00etatik 19:00etara bokletak bekeko agindutako herriko plazan.
Ibarran
• **Gaur, hilak 23.** Ibarako Mugikortasun Planaren aurkezpena Kultur Etxean 19:00etan.
Tolosa Biltzar, hilak 24
• **07:30etik 14:00etara.** Trafiko datuen biketa Orive institutuko DBH 14 mailako ikasleekin eskutik.
• **19:15etan eta 21:45etan.** Zine

maila guztiakotako ikasleak, Anoetako Plaza 08:55ean Ikastolara oinez, bizikletan, parinetan... joan ziren. Txikienak euren gurasoen ardurapean hurbildu ziren Herri Ikastolara.

Ibarako Udalaren esker hitzak txirritulariei
Autorik Gabeko Eguna ez zen ekimen zehatzik ospatu Ibaran. Hala eta guztiz ere, Mugikortasun Astearen baitan eta inguruan haur eta adinak herriko partaidetza eskerrak eman dizkie: «Ibarako Udalkarte partehartze handia eta euren aldeko jasoak erantzun bikaina eskertu nahi da, laster keta herriko txan zedin kortsu baitzen horien lanaren berri emango die herriari. Standean bi hitzaldi emango dira. Ostraleko 19:00etan izango da eta larunbatetako 12:00etan.
• **Larunbat goizean.** Stop CO2 Euskadi alerako kontuak (HOBE). Alderdi baten bitartez, herriarekiki ma aldiak etan aldi zuzen ari diren egiten jakiteko aukera izango dute datoren larunbatetan.
Irailaren 24tik 27ra, ostegunetik igandera
• **Trafiko probak.** I. A. iruzusta pasalekuak (diala) egingo dira probak. Neurtzeko egin ostean, kotxeentzako bi norabide eta aparkalekuak sartzen direla ikusi dute. Herri dela eta, datoren ostegunetik igandera, bialan aparkatu ahal izango da.

reka. Era berran, datoren urtean ere bizikleta marraztu horetan partaidetza berriz ere handi izango dela ziur dago».

Berastalde, Mugikortasunaren Plan, Ibarreko gaur aurkitutako dutea jakinarazi dute Udaltetik. Ekitaldi 1900etan hasiko da Berrito Izagirre Kultur Etxean eta Burtar gonak, bertara gonbidatu dituzte Udalak.

lurako plaza izirik
San Migel plaza autoentzako txiki egin zuten atzokoan, herritarren ekimenen zuzar zabalteko asmoz. Udalaren esanetan, errepideko herriarek euren ekintzak garatzeko ireki zuten, batez ere haurrentzako eta jubilatuen zabalteko ekimenekin.

Foruma Leidorren, Felipe Vegazeta Julio Lamazaresen Elio do difoncio filmaz izango da ikusgai.

Irailak 25 eta 26, ostrala eta larunbat
• **10:00etan.** Stop auto desfilia eta performancea egingo da Tolosalde kaleetan zehar, herriko ikastetxeen eskutik.
• **17:00etatik 20:00etara.** Ostralean, bapentaileria Triangulo plazan.
• **16:30etik 21:00etara ostralean eta larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara / 16:30etik 21:00etara.** Mugikortasun irauunkoraren erakusketak eta zirkuituak, Triangulo plazan. Segway, bizikleta elektrikoak, txitak, eta abar.
• **Ostrala eta larunbat.** Car Sharing ekitaldiak stand batean be-

Tolosan egun aldatuta
Autorik Gabeko Eguna Stop auto performancea egiteko asmoz zegoen Tolosalde kaleetan berrantza. Baina eguraldi txarra medio, ikastetxeak, Udala eta Ingurumen Zentroak kalejira hildaren 25ean, etazi egitea erabaki zuten, 10:00etatik aurrera.

Vilabona eta Zizurkil Zubimusun inguruan
Zubimusu inguruan trafikoa itxita egin zen egun guztian zehar, oinezkoentzako gune bihurtu zela.

Goizean Vilabona eta Zizurkilgo ikastetxeetako 3. mailako ikasleek, inguru hori oinezkoen toki bezala irudikatu zuten marrazki bidez.

Herriaren berriekin, gure bere 6. mailako ikasleek 10 metroko graffiti bat osatu zuten.

Aratsaldean bertan, Jubilatuta Elkarreko ikasle elkartu ziren Zubimusun. Bertan tokietan karta joloketan ibiltzeaz gain, autozkoekin eta lagunekin bertulatu aritu ziren, zuzen herriaren barnean gure bizikletaz.

Azkenik, bi herrietako udalen laguntza izanik, bi herriaren zuzen-ekidizagario bat aldarrikatzeko asmoz, Marian Lazkanok, Zizurkilgo alkateak, irakurri zuen idazkia Zubimusun. Bertan, erazketa baretzeko hirigintza neurriak argitu zituzten: «Herriaren hori kortzeak, hainbat esku-hartze buruzten dira. Gure publiko berri, diseinatu behar da, oinezkoek eta txirritulariei espazio zabalagoa emateko. Herri egun nahiko garrantzitsu inguruetan: noranzko bakarrek errepidean bihurtu, oinezko eta txirritulariei espazio zabalagoa emateko». Aldaketa hauek egiteko denbora eskatu zuten bi udaldek.



Irura: San Migel plaza autoentzako txiki egin zen egun guztian zehar. Aduna: Herri gunean aurkitzen diren autoentzako aparkalekuak kontaketa egin zuten Herri Eskolako haurrek. Zizurkil: musean eta tokan aritu ziren, Zubimusu aurrean. Anoeta: ikastolara oinez, bizikletan... joan ziren. Zizurkil: Marian Lazkanok, Zizurkilgo alkateak, prentsaurrekoan. HITZA

harpidedun izateak badu saria

① 2 lagunentzako otordua

ORENDAIN
Erosario plaza • ORENDAIN
tel. 943 65 30 40

② 2 sarrera eta argazki liburu bat Mendukilo kobazulorako

Asitiz
Mendi jarduera, haur eta gazteentzako ibilbideak, argazki liburua, iragazki liburuak.
Asitiz • 943 956 095 • mendukilopendukilozona • www.mendukilozona.com

② Zerbitzu oso bat

Honekin ileapaindegian

Honekin?
Santa Maria Plaza, 1 • TOLOSA
tel. 943 67 22 44

④ 3 disko osaturiko sorta

baga-biga disketxearen eskutik

TXOKOA hitza

Parte-hartze trukeko diru eta idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info | harpidedunen kodea, izena, herria, eta zehazki emanen parte-hartzailearen izena (guztira gure adostasunarekin) | 19:00etatik 17:00etara. Saria txiki bati buruzkoan agertzen da diru gisa.

E Elkarrizketa

DORI MARTINEZ Sukaldaria



Irene Gonzalez zerbitzaria eta Dori Martinez sukaldaria, Zartagi Jatetxean. E.MAIZ

«Bileretarako gelak eta ostatua bultzatu nahi ditut udaberrirako»

Baliarrain » Zartagi Jatetxea oporren ostean eskuz aldatuta ireki da. Hemendik aurrera, Dori Martinez izango da bertako gidari.

ENERITZ MAIZ

Duela 18 urtetik Tolosan bizi den Dori Martinez (Santander, Espainia, 1959) da, Baliarrainen dagoen Zartagi Jatetxea eta Herri Ostatua aurrera eramateko eronka berria hartu duena. Zortzi urte bertako sukaldetan aritu ostean, orain nagusi lanak egitera pasa da. Egun gutxi da ardura hori hartu zuela. **Santanderrekoa izanda nolatan hemendik?**

Duela 19 urte lana zela-eta nire gizon ohiarekin etorri nintzen Tolosara. Erabat bertakotua sentitzen naiz eta lana eta haurrek ere hemen ditudanez bertan geratu naiz eta hemen jarraitzen dut.

Eta orain nolatan Baliarrainen?

Nik betidanik lana ostalaritza munduan egin izan dut. Sukaldaria naiz eta hainbat jatetxetan egin dut lana eta langabezia nengoen une batean Baliarraingo Zartagitik deitu zidaten lanerako. Hemen hasi nintzen lanean eta zortzi urte pasa ditut sukaldetan.

Beraz ezagutzen zenuen Baliarrain.

Bai. Zortzi urte pasa ditut sukaldetan sartuta eta orain jarraitzeko go-go daukat. Sukaldari bakarra zegoen eta asteburuetan lan dezente izaten zen. Atsedenez egunik ez dago eta sukaldariak ere behar izaten du atsedenez eguna eta horregatik ni

sartu nintzen. Orain, beraiek utzi egin dute eta nik bakarrik jarraituko dut.

Hala ere, lan taldea izango duzu ezta?

Barran, sukaldetan edo zerbitzuetan laguntzeko beste bost lagun ditut, eta batez ere asteburuetarako, lan gehiago izaten baita. Irene Gonzalez legorretarra, Maria Jesus Olano baliarraindarra, Mari Karmen Luna lazkaotarra eta

Karta, menu berezia, ogitartekoak eta plater konbinatuak izango dira asteburuetarako eskaintza

Izaskun eta Amaia Jauregi legorretarrak dira beharrezkoak arabera lagunduko didatenak.

Zer eskainiko diozue bertaratzen direnei?

Lehen asteburuetan karta bakarrik zegoen eta orain ostiraletik igandera, karta eta asteburuetarako menu berezia izango ditugu. Eta afaritarako plater konbinatuak eta bokatak ere eskainiko ditugu. Asteazkenean zehar, eguneroko menua eskaintzen jarraituko dugu lehen bezala. Bestalde, orain jatetxearekin martxa hartu eta udaberri alderako, Ostatua eta enpresatarako bilera gelak bultzatu nahi ditut. **Jatetxeaz gain, ostatua eta bileretarako egokitutako gelak dituzue. Erabilera izan dute?**

Egia esan, oso gutxi. Ez ziren asko lantzen ostatua eta bilera gelak eta uste dut hori landu eta ezagutarazi beharra dagoela publizitatez eginez. Enpresa, eskola edota talde ezberdinen arteko bilerak egiteko bi gela handi ditugu, bata txikiagoa da bestea baino. Logeletan berriz, 30 pertsonatik gorako taldeak sar-

tzeko aukera dago eta bikoteentzako logela ere badago. Baina bi aste hauetan, jatetxea prestatzen aritu gara eta beste guztia udaberriko prest eduki nahi dut.

Zen ordutegi duzue?

Ez dugu atsedenez egunik. Eta astean zehar, astelehenetik ostegunera goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara irekitzen dugu. Asteburuetan berriz, afarien ostean ixten dugu, egunaren arabera. Ga-

Udaberrirako hainbat proiektu martxan jarri nahi ditut, besteak beste, Ibiurko urtegiari lotuta

bonetan 10 egun hartzen ditugu oporrak egiteko eta udako oporrak, bertako jaien ostean abuztu amaieran egiten ditugu.

Hain herri txikia izanik, jendea animatzen da Baliarrainera etortzen?

Bai, jendea etortzen da. Asteazkenean zehar baino gehiago asteburuetan. Batez ere, igande arratsaldetan izaten da mugimendua. Buelta bat ematera etortzen dira eta orain Ibiurko urtegiarekin ere jende gehiago dabil. Eta Ibiurko urtegia dela eta, udaberri alderako zaldiekin edo ibilbideekin logela, gosaria eta afaria bezalako eskaintzak lotu nahi nituzke baina proiektuak besterik ez dira.

Buruan proiektu bat baino gehiago dituzue egiteko.

Bai proiektu asko ditut buruan. Ibiurko urtegiaren inguruan ekin-tza ezberdinak bultzatu nahiko nituzke, web orri bat sortu edota udaletxeak, herriko plaza oinezkoentzako jartzeko proiektua onartua duenez, aurreko aldean terraza jarriko nuke. Bestetik, eraikinaren aurreko aldea oso iluna ikusten dut eta argitxo batzuk ere jarri nahi ditut. Hauek, proiektuak besterik ez dira eta poliki-poliki hasiko naiz prestatzen.

Zer moduz, joan zen inaugurazioa?

Festa ostean itxi zen eta oporrak egiteko aprobetxatu genuen. Oporretatik bueltan, dena hutsa zegoen eta aurreko astea eromena izan zen. Ez dugu aparteko ezer egin, ireki eta gero pasa den igandean herriarentzako luntx txiki bat prestatu genuen, besterik gabe.

H Hilberriak

LUIS ECEIZA DE JUAN



Ibarrako Udal Korporazioak

IBARRAN
2009ko irailaren
23an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Herriko eta garaian garaiko produktuak erosteko aukera

Ibarra » Azoka berezia izango da igande goizean bi gunetan: Emeterio Arrese parkea eta San Bartolome plaza.

REBEKA CALVO

Ibarrako urteroko azoka berezian txanda iritsi da. Igande honean izango da, hilak 27, eta Hauspoa Kultur Elkarrekin antolatuta du Udalaren laguntzarekin eta Zubelzu Piparrak, Txumitxa eta Piparraren Kooperatibaren babesarekin.

Ibarra Azoka eta Piparraren helburua urterokoa da, «herriko nekazaritzari eta abeltzaintzari bultzada ematea, horretarako herriko baserrietako ganaduari zein produktuei plazaratzeko aukera eskainiaz».

Igande goizean, hortaz, Izaskun auzoko zein Ibarrako eskuin magaleko larreetan ikusi daitezkeen arraza desberdinetako behiak, behorak, astoak, Euskal Herriko arrazako txerriak, ardiak, ahuntzak eta abar luze bat ikusi ahal izango dira Hauspoaren hitzetan. Herriko barazki eta fruituak, garaian garaikoak, ikusi eta erosteko aukera ere izango da.

Honekin guztiarekin batera, herriko artisauei ere euren lana erakusteko aukera eman ohi die Hauspoak azoka berezian eta ondorioz, egur-lanak, margoak, loreak, kristalarekin egindako piezak eta bestelako eskulanak ere ikusi eta erosi ahal izango dira.

Berrikuntza handirik gabeko azoka berezia izango da igande-

koa, bertoko produktuek izango dute eta protagonismoa. Ohiturari jarriki, hortaz, bi lehiaketa ikusteko aukera ere izango da goizean zehar.

Lehiaketak

Batetik, Ibarrako Piparraren Euskal Herriko V. Lehiaketa Gastronomikoa antolatu du Xepla elkarrekin. Duela lau urtetik txapelketa honek nazio izaera du eta iaz ere zazpi lurraldeetako partaideak izan zituen. Guztira 22 bat lehiakide hartuko dute parte aurtengon, horietako asko inguruko herrietakoak direlarik.

Bestetik, Eskualdeko XII. Ezti Lehiaketa egingo dute eta bertaraten direnek ezta dastatzeko aukera ere izango dute. Lehiaketa-rekin «eztiaren kontsumoa bultzatzearrekin batera erleak ingurumenari ematen dion babesa ezagutarazi» nahi du Hauspoak. Txapelketako irabazleek Gipuzkoako Ezti Lehiaketarako txartela ere lor dezakete.

» EGITARAU

Hilak 27, igandea

- **10:00-12:00.** Tolosaldeko XII. Ezti-Txapelketa Emeterio Arrese parkean.
- **10:00-13:00.** V. Euskal Herriko Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa Emeterio Arrese parkean.
- **10:00-14:00.** Ibarrako baserrietako abereak, jakiak, barazkiak, piparrak... Emeterio Arrese parkean.
- **10:00-14:00.** Artisauak, tailerrek, argazkiak... plazan.

Azokak bi gune nagusi izango ditu: Emeterio Arrese parkea eta herriko plaza. Lehen gunean «bertakoa eta garaikoa» emango dute ezagutzera, bertan eskualdeko gazta, ogia, herriko baratzetako fruituak, gozo gauzak, Nafarroako ardoa, pintxo morunoak... erosi ahal izango direlarik. Taloa eta sargardoa ere dastatu ahal izango da. Ganadua, aldiz, Arane iturriaren inguruan egongo da. Gune honetan izango dira ere aipatu lehiaketak.

San Bartolome plaza, berriz, artisaunen gunea izango da; euskal ikurrak eta harriak, esku margoturiko kamisetak, kremak, ukenduak... bilduko dira bertan.

Ibarratik Misio Taldea

Honekin guztiarekin batera Ibarratik Misio Taldeak ere bi postu izango ditu plazan. Batean, herrialde desberdinetako artisauro produktuak salduko dituzte eta bestean pintxoak, edariak eta herriko baserriarrek eskainitako produktuak salduko dituzte. Herriko tabernarietako dendariek eskainitako produktuekin osatutako saskia ere zozketatuko dute Misio Taldeko kideek. Postuez gain diapositiba emanaldia eskainiko dute.

Plazan urtean zehar herriko ekintza ezberdinetan ateratako argazkien erakusketa ere ikusi ahal izango da Kultur Etxeko tailerretan landutako eskulanekin batera.

Goiza bukatzeko antolakuntzan, laguntzen, postuetan eta lehiaketan aritzen direnek bazkaria izango dute plazan. Horretarako txartela aldeaz aurretik hartu behar dutelarik.



Iaz ere Ibarrako produktu asko erosi ahal izan ziren azoka berezian. A. OTEZABAL



Ibarratik Misio Taldeak bi postu jarriko ditu San Bartolome plazan. HITZA

Tailerretarako izen-ematea

Ibarra » Urriaren 2a bitarte eman daiteke izena Benito Izagirre kultur etxeko kultur ikastaroetan parte hartzeko.

ERREDAKZIOA

Benito Izagirre kultur etxeak 2009-2010 ikasturteko kultur lan-txetean izena emateko epea ireki du.

Izen-emate epea datorren urriaren 2an amaituko da eta Kultur Etxean bertan egin daiteke. Argibide gehiago nahi duenak 94367 03 99 telefonoz zuzenean edo bitartekari bidez eskuratu da.

Ikastaro guztiak kurtso osoan zehar iraungo dute makillajearena izan ezik, urritik abendura bitarte iraungo baitu.

» IKASTAROA

Egur taila

■ **Asteartea eta osteguna.** 17:00-19:00 eta 19:00-21:00. 159,18 euro.

Ehozirik

■ **Asteartea.** 15:30-17:30 eta 17:30-19:30. 127,89 euro.

Errestaurazioa

■ **Astelehena eta asteazkena.** 19:00-21:00. 159,18 euro.

Masajea

■ **Asteartea.** 18:30-20:30. 127,89 euro.

Pintura

■ **Asteartea eta osteguna.** 15:30-17:30 eta 17:30-19:30 (berriak). 159,18 euro.

Eskulanak

■ **Astelehena eta asteazkena.** 17:30-19:30. 159,18 euro.

Makillajea

■ **Osteguna.** 15:30-17:30. 60,59 euro.

Aretoko dantzak (jarraipena)

■ **Osteguna.** 18:00-20:00. 127,89 euro.

Sevillanak

■ **Osteguna.** 20:00-22:00. 127,89 euro.

Arropa konponketa

■ **Astelehena eta asteazkena.** 10:00-12:00 eta 15:30-17:30. 159,18 euro.

Urteko zazpigarren motor irteera, igandean

Ibarra » 09:30ean irtengo dira plazako atzealdetik eta hamaiketako Elorriko Kanpazar jatetxean egingo dute.

ERREDAKZIOA

Langostino Moto Kultur Elkarrekin kideek urteko zazpigarren motor irteera egingo dute igande honetan. Irteera San Bartolome plazatik izango da 09:30ean, baina *Ibarra Azoka eta Piparra* dela-eta plaza atzealdetik aterako dira oraingoan.

Ilbidea Goierri aldera joanda hasiko dute eta handik Oñati, Torreazua, Zubillaga eta Arrasate pasata Elorriara iritsiko dira hamaiketako egitera. 13:30ean itzuliko dira berriz ere Ibarrara. Hamaiketakoan zenbat pertsona egongo diren jakiteko aldeaz aurretik eman behar da izena eta sei euro ordaindu behar dira.

Izena emateko *langostinomoto-festa@gmail.com* helbidera idatzi behar da edota hurrengo telefonotara deitu: 618 448 194 (Aitor), 670 417 915 (Moski) edo 636 403 170 (Ander).

2009ko USATEGIEN ENKANTEA
BIRIGARRO ETA USOA Areso (Nafarroa)
Tel.: 948 510 327 - 608 928 626
Donostiatik 20 minututara
Paradetaraino sarbidea kobetzea
Enkantea Udaltzeko Batzar Aretoran burutuko da.
1go enkantea: irailaren 19an Larunbata 19:00
2. enkantea: irailaren 26an Larunbata 19:00



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Jubilatu elkarteak hilaren 23rako Arabara antolatu du irteera, Laudio, Artziniega, Amurrio eta Gasteiz bisitatuz. Izen-ematea, elkartearen 16tik aurrera 11:00etatik 12:00etara 30 eurotan.
- **Bedaio.** Hilaren 27an II. Raid Las-terketa antolatu dute Bedaion, 25 kilometroko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartearen (www.bedaio.com).
- **Tolosa.** Hilaren 26an Alurtxiki elkarteak auzo afaria antolatu du Urkizun. Izen-ematea, 652 70 96 80 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Bisita gidatuak Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan, 12:00etatik 18:00etara. Izen-ematea, TEEn (Tolosako Ekinbide Etxea), 943 65 04 14 (09:00-13:00 eta 16:00-19:00) edota topic@cittolosa.com.

Erakusketa

- **Tolosa.** Iñigo Altolagirreren pintura erakusketa Aranburun.

» GUARDIAKO FARMAZIAK


- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Sueziatik, Mont Blanc-etik eta Pakistandik ere heldu dira argazkiak lehiaketara; bihar izango da azken eguna zuten argazkiak bidaltzeko; sari interesgarriak irabaz ditzakezue zuten argazkia bidalita!

Azken egunak parte hartzeko

SUEZIA • Sueziako irudi eder hau bidali du Milagrosek lehiaketara eta hauxe azaldu du: «Barkuan Stockolmo-tik irteten ari ginela honelako ilunabar hau ikusteko aukera izan genuen eta are polittagoa izan zen kai horiek gure ondotik kegan ikustean». MILAGROS OLGA GARCIA DE ITURROSPE (IBARRA)



MONT BLANC • Mendi handien edertasuna eta gogortasuna ikus daiteke Elenak bidalitako argazki honetan: «Mont Blanc-en atera nuen argazki hau Abuztuan. Harrigarria da zein bideetatik ibiltzen diren mendizaleak!». ELENA URANGA (TOLOSA)



PAKISTAN • Hemen ere mendiaren edertasuna ageria geratzen da. Jexuxek bidali digu argazkia: «Argazki hau bidaltzen dut. Baltoroko trekina egiten, Urdukas parean ateratakoa, (Pakistanen), goiz fresko batean elurra egin ondoren. Mendi ikusgarriak daude!». JEXUX BERNABE (IBARRA)

A Agurrak



Urte askoan!

Aitziber Aiestaran Elordi (Ibarra).

Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat zure familia eta bereziki Ane eta Aratzen partetik.